

Jardueren Oroitidazkia 2008

SABINO ARANA FUNDAZIOA

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- ARGITALPENAK
- 3.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4.- LURRALDE IRASKUNDEAK
 - 4.1.- XABIER DE LANDABURU IRASKUNDEA
 - 4.2.- LUIS DE ELEIZALDE IRASKUNDEA
 - 4.3.- UZTURRE PRESTAKUNTZA IRASKUNDEA
- 5.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZATOKIA
 - MINTEGIAK
 - HITZALDIAK
 - THINK GAUR 2020 PROGRAMA BEREZIA
- 6.- GAZTERIA
- 7.- EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK
 - 9.1.- Sabino Arana Fundazioaren euskara-plana
 - 9.2.- Bertso paperen lehiaketa
 - 9.3.- Mahaingurua: ““Hizkuntza ala hizkuntzak. Euskadi–Galiza–Catalunya
- 8.-EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 9.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 10.- BESTE KULTUR JARDUERA BATZUK
- 11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK
- 12.- 2008ko JARDUEREN EGUTEGIA

1.- BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

*** “RADIO EUSKADI·REN HISTORIA**

Ikerketa-lan hau amaituta dago; Radio Euskadiren historia jasotzen du lau fasetan banatuta: gerra zibilean Radio Euzkadi izenarekin jardun zuena, militarrek erabilia gerrarako bakar-bakarrik; Iparraldeko herritxo batean instalatu zen emisora, Euskal Erresistentziaren Irratia izan zena. Venezuelako Radio Euzkadi, Euskal Erresistentziaren tresna izateari utzi gabe, alabaina, frankismotik ihesi joandako EGIko hamarnaka gazte sortu eta iraunarazia; eta oraingo Radio Euskadi, askatasunean sortua, identitate-ezaugarriak berreskuratzeko eta kultura eta euskara sustatzeko.

*** LUIS ARANAREN BIOGRAFIA**

Luis Arana (1862-1951) bizkaitarraren figura gaur egun ia erabat ezezaguna da. Ez dago haren gaineko argitalpenik eta bera aipatzen duten artikulak ere oso gutxi dira. Hala ere, XIX. mendearen azken alde eta XX.aren lehenengo erdialdea bitartean lehenengo mailako eragile politikoa izan zen. Bera izan zen bere anaia Sabino abiarazi zuena, berak ikusarazi baitzion 1882an izan zuten elkarriketa batean “euskal nazioaren ideia”.

Luis Aranaren gaineko ikerketa-egitasmoa funtsezko harroin bitan datza. Alde batetik, Arratiako Euskal Abertzaletasun Agiritegian, eta Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteizen, edo Donostian dagoen Koldo Mitxelena bezalako beste zentro batzuetan gordeta dagoen dokumentazioa kontsultatzea

*** EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOAREN ETA AGIRITEGIAREN ESTRATEGI ETA BIDERAGARRITASUN PLANA**

Museoak eta Agiritegiak Artea Arratian dituzten mugapenka ikusita, Fundazioak komenigarri ikusi du, gaur egun gauden egoera azterketa egitea eta strategi eta bideragarritasun plan bat zehaztea, erronkei eta aukerei ondo zehaztutako estrategia batekin aurre egiteko, eta arrakasta bermatuta. Azterlan hori Deloitte aholkularitzak egin zuen urtarrila eta ekaina bitartean, eta atera duen ondoriozko proposamena Museoarentzat eta Agiritegiarentzat kontzeptu-eredua eta eragiketa modu berri bat da.

2.- ARGITALPENAK

*** Liburu-aurrekezpena “XABIER LANDABURU. BIZITZA OSOA EUSKAL HERRIAREN KAUSARENTZAT”**



Izenburu bereko erakusketaren osagarri gisa, Sabino Arana Fundazioaren Xabier Landaburu iraskundeak 90 orrialdeko katalogo eder bat ere prestatu du, elebiduna; lan hori ere Alex Ugalde erakusketaren arduradunak koordinatuta egin da; bertan Landabururen biografia zehatz bat eskaintzen da, bai halaber Landaburu ezagutu zuten pertsona ospetsu batzuek

(adibidez, Salvador de Madariaga eta Venancio del Val gasteiztar kazetari eta kronikaria) eta gaur egungo historialari eta ikertzaile zenbaitek beraren gainean emandako iritziak, eta haren idazkien hautapen bat, beraren pentsamolde politikoa hobeto ezagutzen laguntzeko.

Euskal politikari horri egiten zaion lehenengo biografia da; bertan, gainera, haren familiak berak ere ez dakizkien datu batzuk azaleratzen dira. Informazio hori guzti hori biltzeko hainbat artxibo eta erakundetan ikertu behar izan da, baita familiarekin zenbait bilera egin ere.

*** Liburu-aurrekezia: “Juan Ajuriaguerra en el corazón”**



Euskal abertzaletasunaren historian ezbairik gabe erreferentea izan den Juan de Ajuriaguerra Jn.aren (1903-1978 heriotzaren 30. urteurrena oroitzen zelarik, Sabino Arana Fundazioak haren omenezko liburu bat aurkeztu zuen. Liburuan bildu dira, batetik, 1978an, haren heriotzaren ondoren, idatzitako lekukotasunak eta, bestetik, oraindik politikan diharduten pertsona nabarmen zenbaitek haren giza eta politika ibilbidea gogoratzen duten

ekarpenak.

Guztira 78 lekukotasun dira, eta horien osagarri, garai hartako argazkiak eta karikaturak ere erantsi dira, joan den mendeko euskal historian funtsezkoa izan zen politikari honen giza kalitatearen ikuspegi osoa eskaintzen digutelarik.

*** Liburu-aurrekezia: “Rafael Picavea (1867-1946). Euskal Historiaren pertsonaia ahaztua”**



Sabino Arana Fundazioak eta Oiartzungo Udalak elkarlanean argitaratutako liburu hau urriaren 9an aurkeztu zen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Liburua Ander Delgado Cendagortagarza unibertsitate-ikertzaileak egin zuen, eta bertan sakon aztertzen ditu, Rafael Picavea Leguia (Oiartzun, 1867-Paris, 1946) gaur egun euskal herritarrik gehienentzat ezezaguna den gipuzkoar industriari, kazetari eta politikariaren biografia eta ezaugarriak.

Liburuak Rafael Picavearen bizitzaren ikuspegi oso bat eskaintzen du, bere jardueran garatu zituen lau esparruak aztertzen direlarik: enpresa-munduan egindako lana; euskal prentsa modernoaren arloan garatutakoa eta, bereziki, politikagintzan, hurrenez hurren, Donostiako eta Gipuzkoako diputatu eta senatari zereginetan eta erbestaldiko Euzkadiko Jaurlaritzaren Parisko ordezkari gisa garatutakoa.

.

*** AGIRRE LEHENDAKARIAREN EGUNKARIAK**

Lehendakariak 1941eko urtarrilaren 7a eta 1942ko maiatzaren 27a bitartean idatzitako egunkariaren transkripzioa egin da. Hau da, Belgikatik, Ameriketara ihes egiteko lehenengo urrats gisa, Alemaniarantz irteteaz batera idazten hasi eta amaitu arte, behin lurralde libreetan zegoela.

Transkripzioaz gain, egunkariak ohar ugari egin dira koaderno haietan ukitzen diren gai batzuk ulerterrazago egiteko. Gainera, liburuaren hitzaurrean argitalpen berri honen zergatia ere azalduko da, eta inoiz argitaratu bako 28 dokumentu ere erantsi dira. Agiri horietako batzuk familiak laga dizkigu; Agirre-Zabalatarrek, nazi-faxismotik ihesean, Europan zituzten senideei eta hurreko adiskideei idatzitako eskutitzak dira. Hortaz, bada, uste dugu lagungarri izango direla egunkariko testua hobeto ulertzeko.

Gure iritzia da, liburuak oso ondo islatzen duela Agirrek, berarentzat eta Euskadirentzat bereziki zailak ziren garai haietan, zuen pentsamolde politikoa, bai halaber dokumentu bereziki baliozkoa da une hartako errealitate politikoa, zati bat behintzat, ulertzeko. 2010ean argitaratuko da.

3.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

Sabino Arana Fundazioak 2008an, berak argitaratzen duen pentsamendu eta historia aldizkariaren beste lau zenbaki argitaratu ditu:

25. zk. (urtarrila): Euskadi munduan

26. zk. (martxoa): Afrika: kontinente galdua?

27. zk. (uztaila): Txina: Zhong-era berriro

Nº 28 (octubre): Zenbat gara? Lau bat hiru bost zazpi (LTHren 25. urteurrena)

Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen pentsamendu eta historia aldizkariaren 25. zenbakian Ibarretxe, Ardanza eta Garaikoetxea lehendakarien gogoetak jaso zituen. Haiek Euskadiren gainean duten ikuspegia eskaini eta munduan izan behar duen lekuaz hitz egin ziguten. Iñigo Urkullu EAJren EBBko lehendakari egindako elkarrizketa bat ere bada. Zenbaki honetan, gainera, aurreko 24 zenbakietan dauden gaien eta egileen aurkibideka biltzen dituen CD bat ere erantsi zen.

Urtarrilaren 26an Afrikanantz jo zuen, sakon azaltzeko afrikar labirinto korapilotsua eta pixkan bat hobeto ulertzen laguntzeko Kontinentea osatzen duten herrialdeen askotarikotasuna eta desberdintasuna.

Urteko hirugarren eta guztira 27. zenbakiaren gai nagusia Txina izan zen. Sakonetik heldu zien Asiako herrialde horrek azken hiru hamarkadotan bizi izan dituen aldaketei.

Eta 28. zenbakian, 2008ko azaroaren 25ean Lurralde Historikoen Legearen (LTH) onespeneren 25. urteurrena ospatzen zelarik, lurralde historikoetan hiru diputatu nagusiek (Bilbao, Olano eta Agirre) lurralde-ereduari eta LTHri, berorren eraginkortasun, gaitasun, ments eta abarri buruz zituzten ikusmoldeak eskaini zituzten.

4.- LURRALDE IRASKUNDEAK

Lurralde-iraskundeen bitartez burutu diren jarduerak honako hauek izan dira:

4.1.- Xabier de Landaburu iraskundea

“Erakusketa: “Xabier Landaburu (1907-1963): bizitza osoa euskal herriaren kausarentzat”

Arabako abertzaletasunaren buruzagi historikoa izan zen Xabier Landaburu Fernández de Betoñoren (Vitoria-Gasteiz, 1907 – Paris, 1963) jaiotzaren mendeurrena betetzen zelarik,



horren kariatara Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak, bere Xabier Landaburu iraskundearen bitartez, erakusketa bat antolatu zuen arabar hiriburuko Amara aretoan, haren bizitza, lana eta gogo-asmo europazaleak ezagutaraztea xede. Erakusketaren arduraduna Alex Ugalde EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakasle eta Zientzia Politikoetan doktorea

izan zen. Erakusketa otsailaren 19tik martxoaren 9ra bitartean ikusi ahal izan zen.

Xabier Landaburu XX. mendeko euskal politikaririk nabarmenenetako bat izan zen: Kongresuko diputatu, Arabatik; erbesteko Euzkadiko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta, idatzi zituen artikuluekin eta bere “La causa del Pueblo vasco” liburuarekin, euskal abertzaletasunaren teoriarietako bat. Gainera Nazioarteko Lantalde Berrien (NEI) sorreran ere parte hartu zuen, zuzendaritza-batzako kide ere izan zelarik, ordurako erbesteratuta zegoen Agirre lehendakariarekin batera. Erakusketa hartan, gainera, Landaburuaren alderdirik gizatiarrena ere agertu zen.

Hamabi panel baliatuta, haietan euskarazko eta gaztelaniazko testuak eta, berorien



lagungarri, irudiak eta argazkiak zeudela, eta zenbait erakustokiren bitartez (dokumentazioa, argitalpenak, objektu pertsonalak...) gainbegiraketa bat egiten zaie Xabier Landaburuk eskaintzen dituen alderdi nagusiei, hala nola: abokatu gisa, kazetari, idazle eta publizista gisa, kultur erakundeetako eragile gisa, egunkari eta aldizkarietako zutabegile gisa, Euzko Alderdi Jeltzaleko buruzagi gisa, etab.

2.- “Xabier Landaburu (1907-1963): bizitza osoa euskal herriaren kausarentzat” liburuaren aurkezpena

Izen bereko erakusketaren osagarritzat, Sabino Arana Fundazioaren Xabier Landaburu iraskundeak 90 orrialdeko katalogo oso eta eder bat ere prestatu zuen; argitalpen hori ere



Alex Ugalde erakusketaren arduradunak koordinatuta egin zen. Aipatu lanean Landabururen biografia zehatz bat eskaintzen da, bai halaber Landaburu ezagutu zuten pertsona ospetsu batzuek (adibidez, Salvador de Madariaga eta Venancio del Val gasteiztar kazetari eta kronikaria) eta gaur egungo historialari eta ikertzaile zenbaitek beraren gainean emandako iritziak eta Landabururen beraren idazkien hautapen bat, beraren

pentsamolde politikoa hobeto ezagutzen laguntze aldera.

Honako hau euskal politikari horren lehenengo biografia landua da; bertan, orain artean jakin ez diren, ezta bere familiak ere ezagutzen ez zituen, datu batzuk agerrarazten dira. Informazio hori guztiori biltzeko, hainbat artxibategi eta instituziotan miatu behar izan da, baita familiako zenbait kiderekin bilera batzuk egin ere.

3.- “Landaburu eta Europa” hitzaldia, Leyre Arrieta Historia Garaikidean doktore eta Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko irakasleak emana

Leyre Arrieta Historia Garaikidean doktore eta Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko irakasleak hitzaldi batekin itxi du Sabino Arana Fundazioak, Xabier Landabururen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko, 2008an osoan antolatu duen jardueramultzoa.

Leyre Arrietak eman zuen “Landaburu eta Europa” izeneko hitzaldia azaroaren 18an agitu zen Eusko Ikaskuntzaren Gasteizko (Gral Álava/k, 5-1.a) hitzaldi-aretoan



Arrieta doktoreak bere hitzaldian esan zuen “Francisco Javier Landaburu EAJk garatu zuen politika europazalearen, batez ere Bigarren Mundu Gerraz geroztikoaren, adierazgarri nagusietako izan zela. Landaburuk Europa batu eta indartsuaren, Euskadik beste nazio bat lez parte har zezakeen Europa federalaren, alde egin zuen defentsa “Agirre doktrina” deritzanaren

planteamenduan sartzen da. Hala EAJk nola Euzko Jaurlaritzak egin zuten Europaren aldeko apustu hori sendotu egin zen Bigarren Mundu Gerraren ostean, eta praktikan ere bere isla izan zuen, euskal buruzagi batzuek nazioarteko erakunde europazale zenbaitetan parte hartu zutelarik. Buruzagi horietako bat Landaburu izan zen. “Bera izan zen euskal abertzaleen ageriko aurpegia` bai erakunde federalistetan eta bai kristau-demokraziaren esparruetakoetan”.

Arrietak azpimarratu zuen, “Kristau Demokraziako Euskal Lantaldeko buru izan zelarik, ohiko kontu bihurtu zela, Landaburu Europako foroetan egotea. Euskal Mugimendu Federalistaren (MFV) sortzailea ere izan zen, bai halaber Europar Mugimenduko Espainiar Kontseiluko kide eta Nouvelles Equipes Internationales (NEI) delakoen Batzorde Betearazleko kide”.

Leyre Arrietaren iritziz, Landabururen planteamendu europazaleak hain gaur-gaurkoak dira ezen, berak ere bere hitzaldia planteamendu haien eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Europaren gainean egindako gogoeta batzuen arteko konparazio batekin bukatu baitzuen..

4.2.- Luis Eleizalde iraskundea

Lekukotasunak biltzea Gipuzkoan

Urte osoan lekukotasun ugari grabatu dira, gure herriaren historiako zuzen-zuzeneko protagonista zenbaitengandik jasota.

4.3.- Uzturre iraskundea

Mahaingurua: “Euskal Herria nafar euskalerrizaleen irudiko”

Maiatzaren 15ean egindako mahaingurua. Honako hauek osatu zuten: Santiago Leoné eta Xabier Zabaltza historian doktore eta saiakera-idazleak, hurrenez hurren eta Aingeru Epaltza kazetari eta idazlea. Elkarraldiaren koordinatzailea Fernando Mikelarena historialari eta Zaragoza,ko Unibertsitateko irakaslea izan zen, mahaingurua bera zuzentzeaz gain.



Santiago Leonék adierazi zuen, “historiografiaren ikuspuntutik Nafarroari gerta zekiokeen gauzarik txarrena Erreinua izatea izan zela. Joera guzietako historialarientzat horixe izan da aitzakiarik

onena Nafarroaren Egiazko Benetako Historia (dena hizki larriz) idazteko”

Xabier Zabaltzak, bere aldetik, Nafarroako hizkuntzen historia izan du ardatz. Historian doktore eta saiogile honen arabera “egungo Nafarroa, guti goiti-beheiti, klasikoen Vasconia hura da, baina horrek ez du erran nahi lurralde osoan euskaraz hitz egiten zenik. Dakigunez, Nafarroa elebidun izan da, bederen”.

Eta Aingeru Epaltza kazetari eta idazlea, azken hamarkadetan Euskal Herriaren zazpi lurraldeen batasuna eta independentziaren ametsa erdiesteko “galdutako trenez” mintzatu da”.

Mahaingurua: “Ekonomiaren lokarriak. Nafarroaren eta EAEren arteko gaur egungo ekonomi eta enpresa harremanak”

Urriaren 28an egin zen “Ekonomiaren lokarriak. Nafarroaren eta EAEren arteko gaur egungo ekonomi eta enpresa harremanak” izenburuko mahainguru hau. Mahaingurukideak izan ziren Juan Carlos Longás, NUPEko Ekonomia saileko irakasle titularra, eta Sixto Jiménez, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordea eta enpresaria. Fernando Mikelarena Zaragozako Unibertsitateko historialari eta irakaslea arduratu zen debatea zuzendu eta koordinatzeaz.



Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariorde eta enpresari **Sixto Jiménez**ek hitz egitean esan zuen “Euskal Herriko enpresen arteko harremanak bereziki biziak direla, haien arteko hurbiltasunagatik, kultur kidetasunagatik eta duten konfiantza-kulturagatik”.

Sixto Jiménez en irudiko, begi-bistakoak dira Hego Euskal Herriaren bi esparruen arteko osagarritasunak. “Bien artean

enpresa-jarduera biziko europar erregio bat osatzen dute, bere dinamika eta auzo-erregioetan eragina dituen gune bat izateko adina masa kritikorekin”, adierazi zuen.

Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordeak azpimarratu du, bi erkidegoek partekatzen dugun faktore negatibo bat sindikatu-aniztasuna dela, haien artean dagoen gizarte eta identitate bereizketa bikoitzak bizi gaituelarik. Enpresa berean sindikatu asko egoteak erran nahi du, are gehiago kostatzen dela akordioak erdiestea, hala ekonomiaren alderdian nola enpresa barneko konfiantza-kulturaren kalitateaz denaz bezainbatean”.

Carlos Longás NUPEko Ekonomia saileko irakasle titularrak, bere aldetik, azaldu zuen, Nafarroak eta EAEk osatzen duten guneak —industri garapen azkarrarekin— beharrezko baldintzak dituela, “kontrapisutzat egiteko”, beraz Nafarroarentzat logikoena euskal korapilo horretara biltzea dela”, beste ardatz ekonomiko ez hain indartsu eta urrunagoetara barik”.

5.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

5.1.- "China: Zhong-era berriro"

Sabino Arana Fundazioak "Txina: zhong-era berriro" izenburu orokorrarekin antolatu zituen jardunaldien barruan, otsailak 13an mintegi bat egin zen, zenbait adituk eta politikako, ekonomia eta enpresako, unibertsitateko, Euskadiko txinatarren kolektiboetako eta beste sektore batzuetako ordezkariak parte hartuta.



Parte hartu zutenen artean nabarmen ditzagun: Eugenio Bregolat, 1985-1991 eta 1999-2003 bitartean Txinan enbaxadore izandakoa eta oraingo Andorrako enbaxadorea; Jianmao Wang, CEIBSeko (China Europe International Business School) ekonomia irakaslea eta Txinako ekonomiaren gaineko aditurik handienetako bat; Jesus M^a Herrasti, MCC Internacionaleko presidentea, eta Alex Otaegi, Gamesa Corporaciónen Institutio arteko Harremanetarako zuzendaria.

Txinaren gaineko jardunaldi horiekin, Sabino Arana Fundazioaren helburua izan zen, Txina esparru guztietan egiten ari den erreformaren sakontasuna aztertzea eta baloratzea, hain zuzen ere atzerapen eta mendekotasunezko hainbat menderen ostean Historiaren erdigunera itzularaz ditzan irrikaz dauden aldaketa horrena.

5.2.- "LTH (Lurralde Historikoen Legea) onetsi izanaren 25. urteurrena"



Apirilaren 23an hogeita hamar bat euskal instituzioetako ordezkari eta Lurralde Historikoen Legearen arloko aditu Bilboko Euskalduna jauregian bildu ziren, goiz eta arratsalde, Lurralde Historikoen Legearen, ; ezbairik gabe, gure Herriaren arkitektura politiko-instituzionala eratzerakoan oinarritzakoa den lege baten 25 urteen balantze bat egiteko.

Txosten-emaileak izan ziren: Santiago Larrazabal (Deustuko Unibertsitateko

Konstituzio Zuzenbideko irakaslea eta Eukal Gaien Institutuko zuzendaria); Iñaki Lasagabaster (EHUko Zuzenbide Administratiboko katedraduna.); Juan Miguel Bilbao (Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburuordea); José Guillermo Rubí (Bizkaiko

Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Saileko idazkari nagusi teknikoa); eta Mar Zabala (EUDELeko zuzendari nagusia).

5.3.- “Txile: etorkizun oparoko herrialde bat mundu globalean”



Maiatzaren 20an egindako topaketa horretan, goren mailako ordezkari instituzionalak eta ekonomi, enpresa, finantza eta sindikatu esparruetakoak Txileko presidente ohi eta gaur egun Errepublikako senatari den Eduardo Freirekin bildu ziren.

“Txile: etorkizun oparoko herrialde bat mundu globalean” izenburu orokorreko jardunaldi horretan Eduardo Frei enpresa, finantza eta sindikatuen goi ordezkari zenbaitekin eta Euskadiko legebiltzarrean ordezkari izan duten ia joera ideologiko guztietako ordezkariekin mintzatu zen hainbat gaiez, hala nola: Txileren Merkataritza Libreko Ituna munduan; asiarrak munduarekin eta Europarekin dituen harreman arrakastatsuak; mundu mailako integrazio-akordioak; irekitasunaren aldeko politika; globalizazioak herrialdeari dakartzkion erronkak, bai halaber, Txilek XXI.mendearen duen eginkizuna.

HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK

5.4.- “Txinako erreforma ekonomikoaren gizarte eta politika ondorioak”



Globalizazioaren arreta-gune nagusi bihurtu dira Txinak dakarren garapen ekonomiko biziki azkarraren prozesua eta horren eragin ekonomikoa eta geopolitikoa. Mundu Bankuaren arabera, *“Txinak belaunaldi batean egin du herrialderik gehienei mendeak eta mendeak kostatu zaiena”*. Orain Andorrako enbaxadore den Eugenio Bregolat (1985-1991 eta 1999-2003 bitartean Txinako enbaxadore ohiak hitzaldi bat eskaini zuen otsailaren 13an, Txinako ekonomi aldaketa horrek dakartzan gizarte, buru eta politika aldaketak aztertzeko. Hitzaldia, Sabino Arana Fundazioak “Txina, zhong-era berriro” izenburuarekin antolatutako mintegiaren barruan eskaini zen.

5.5.- Hitzaldi-sorta: “Lurralde Historikoen Legeak 25 urte”



Lurralde Historikoen Legea (LTH) onetsi izanaren 25. urteurrena gogoratzeko, Sabino Arana Fundazioak aipatu Legearen gaineko hitzaldi-sorta bat antolatu zuen; bertan lurralde historikoetako hiru diputatu nagusiek hitz egin zuten, eta bakoitzak bere ikuspegia eskaini

zuen lurralde-ereduaz eta LTHz, baita etorkizunerako gogoetak egin ere.

Hitzaldi-sorta Xabier Agirre Arabako diputatu nagusiak ireki zuen apirilaren 3an. Apirilaren 17an Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak hitz egin zuen, eta, azkenik, hitzaldi-sorta Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak itxi zuen apirilaren 23an.

Arabako Diputatu Nagusiaren iritziz Legeaz egin den aplikazioaren balantzea *“positiboa izan da; hasierako egoera zail batetik abiatuta, Gobernuaren, Aldundien eta Udalen arteko lankidetzaren eta elkarlan maila nahikoa lortzea ahalbidetu du”*.

Xabier Agirrek adierazi zuen, Lurralde Historikoen Legea *“funtsezko osagaia izan dela orain indarrean dagoen Institutuzio Sistema eraikitze eta inplikaturako hiru mailen artean, hau da, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen artean, eskuduntzen eta dagozkien finantza-baliabideen banaketarako eredu ezartzeko”*. Arabako Diputatu Nagusiak uste du *“eskuduntzen banaketa nolabaiteko malgutasun-maila batekin egin dela, Herriaren egiturarekiko bateragarria, alegia, eta denbora igaro ahala gerta daitezkeen egoerei egokitzea ahalbidetu duela, gure herritarren beharrezko hobeto erantzutea xede”*.



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak, bestalde, esan zuen, *“Lurralde Historikoen instituzioek euren burua antolatze dituzten eskumen garrantzitsuak dituztelarik, Autonomia Erkidegoaren egitura federala finkatu egin dela eta egokiro moldatzen zaiela gaur egungo beharrezko”*.

Markel Olanoren iritziz, joan diren 25 urteon balorazioa ona da, oro har. Ildo horretan, etorkizuneko ikuspegiz, Estatutuaren esparrua aldatzeak nahiz gaintitzeak ekarri dezakeen agertoki batean *“eskumenen banaketa berrikusi beharko da, Estatuarekin artikulatzen den sistemari egokitzu hura eta, ondorioz, baliabide-banaketa ere moldatuz”*.



Azkenik, apirilaren 23an, Jose Luis Bilbaok ezinbestekoa zeritzan euskaldunen arteko eta horien eta Estatu espainolaren arteko bizikidetzaren egituratuko duen akordio zabal bat lortzeari. Bilbaoren iritziz, ziklo bat agortu da eta beste berri bat eta itun handi bat behar dira, eta hori, *“mundu sozialistak eta mundu abertzale demokratikoak bakarrik egituratu dezakete”*.

Diputatu nagusiak akordio handi hori beharizan baten barruan kokatzen zuen, hots: *“zentraltasunak gizarte kontuetan ordezkatzeko duen erdi-ezkerreko korrante handi horri politikoki eta instituzioetan adierazpidea emango dion elkar ulertze handi bat”*.

5.6.- Mahaiingurua: “Obama Vs McCain”



Urriaren 2an alderdi demokrataren eta errepublikanoaren Estatu espainoleko ordezkari banak buruz buruko debate bat egin zuten, Iparramerikako presidentetzarako hauteskundeetarako hilabete fal zela.

Amerikar hautagai bien — Barack Obama eta John Mc Cain— ordezkari gisa, **Alana Mocerik**, Estatu Batuetako Alderdi Demokrataren Estatu espainoleko presidenteak, eta **James Dadson**-ek, iparramerikar Alderdi Errepublikaren Estatu espainoleko presidenteordeak parte hartu zuten.

Debate/autu honen asmoa izan zen: gerta zitezkeen emaitzei buruz gogoeta egitea; debate hori Euskadin bizi diren iparramerikarrei helaraztea ordezkari demokrataren eta errepublikarraren ahotik; bertatik bertara ezagutzea haien buruzagi nagusien planteamenduak, bai halaber, gurearen aldean hain desberdina den hauteskunde-prozesu baten berezitasunak.

5.7.- Hitzaldi-sorta “*Ekialde Hurbila: bolborategi estrategikoa*”

»



Sabino Arana Fundazioak “*Ekialde Hurbila: bolborategi estrategikoa*” izenburupean antolatutako hitzaldi-sorta honen asmoa hainbat kontu garrantzitsu jorratzea izan zen, hala nola: estatu nazioanitzaren eraikuntza nazio desberdinez osatutako estatu horietan; lurralde geostrategiko gisa eta hain gutiziatua den petrolioaren iturri gisa duen garrantzia; atzerriko potentziek erregioko barne kontuetan esku hartzeak ekarritako arazoak; gatazka iraunkorrak, erlijio eta ideologi jatorrikoak gehienak.

Lehenengo hitzaldia azaroaren 6an izan zen, eta, asasinaturik dauden Libanoko presidente ohi Bashir Gemayel-en iloba eta lehen ministro Bashir Gemayel-en anaia **Samy Gemayel**, politikari libandarrak eman zuen, izenburua “Libanoko konfesionalismoa eta Espainiako erregionalismoa: irtenbide kontrajarri bi arazo berdin birentzat”.



Dizayee, Kurdistaneko Alderdi

Azaroaren 24an **Ibrahim Kalin**, Politika, Ekonomia eta Gizarte Ikerketarako Fundazioaren (**SETA**) Ankarako (Turkia) zuzendaria eta Georgetown-eko Unibertsitateko (Washington) irakasleak hitzaldi bat eman zuen “*Herrialde bat bidegurutzean*” izenburupean. SETA Fundazioko zuzendaria Turkiak Ekialde Hurbilean duen eginkizunaz mintzatu zen.

Hitzaldi-zikloa azaroaren 27an itxi zen **Safeen** Demokratikoaren nazioarteko harremanetarako

arduradunak eman zuen hitzaldiarekin. Mintzaldian, Ekialde Hurbileko nazioarteko terrorismoaz hitz egin zuen, eta nabarmendun zuen, nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko, nazioen arteko harremanak sendotzeak duen garrantzia.

“THINK GAUR EUSKADI 2020” PROGRAMA BEREZIA:

“Think Gaur Euskadi 2020” egitasmoarekin egin nahi dena da, mundu mailan ospe handia duten aditu zenbaiten laguntzarekin, modu zabalean eta denen artean gogoeta egitea Euskadi 2020an non kokatu nahi dugun jakiteko, bost arlo nagusi kontuan hartuta, hots: jasangarritasuna, gizarte-politikak, kultura, berrikuntza eta Euskadi-Europa: ikusmuga konstituzionala.

5.8.- “Nuevas formas de participación y comunicación”



Sabino Arana Fundazioak uztailaren 11n elkarraldi bat antolatu zuen Yon Goicoechea Lara venezuelari ikasle-liderraren eta gure gizarteko jarduera-sektore zenbait: Unibertsitatea, komunikazioa, artea, moda, musika, sukaldaritza, enpresa, GKEak, etab. ordezkatzen dituzten hainbat euskal gazteren artean.

Bileraren helburua euskal gazteek parte hartze soziopolitikoaren esparruan izan duten bilakaera aztertzea izan zen, bai halaber etorkizuneko agertokiak antzematea eta teknologia berriek beste komunikazio-modu batzuk abian ipintzerakoan eskaintzen dituzten aukerak aztertzea.

5.9.- “Europa – Latinoamerika: mundu bat eraldatze-bidean”



Helburu nagusitzat mundu globalizatu honetan gure gizarteek aurrean dituzten erronka estrategikoez hitz egitea hartuta eta, halaber, irtenbide-proposamen zenbait aurreratzearren, Sabino Arana Fundazioak “Mundu bat eraldatze-bidean” izeneko mintegia egin zuen Bilbon, ekainaren 5ean”. Bertan politikari europarrek eta latinoamerikarrek eta nazioarteko adituek parte hartu zuten.

Helburua zen, mundu globalizatu honetan gure gizarteek aurrean dituzten erronka estrategikoez hitz egitea eta irtenbide-proposamenak mahairatzea. Horrenbestez, aztertutako alderdiak izango ziren, besteak

beste: lankidetzaz integratzearen palanka gisa; eredu ekonomiko-sozial berriak eta europar errealitate berrien izari politikoak eta ekonomikoak.

Elkarraldian Mexiko, Txile, Paraguay, Uruguay, Frantzia, Italia, Eslovakia, Lituania, Txipre, Katalunia eta Euskadiko ordezkariak egon ziren. Besteak beste; **Exequiel Silva**, Txileko Kristau Demokraziako (CD) nazioarteko idazkaria;; **Lapo Pistelli**, diputatua eta Italiako Alderdi Demokratikoko (PDI) nazioarteko idazkaria; **Franco Danielli**, senatari ohia eta Italiako Atzerri ministro-orde ohia; **Jon Azua**, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohia; **Rolando Garcia**, diputatu ohia eta Mexikoko Instituto Nacional de Migración-eko Nazioarteko eta Institutuzioarteko Harremanen koordinatzailea; **Sebastián Acha**, Paraguayko diputatu nazionala; **Tomás Jocelyn-Holt**, Txileko diputatu ohia eta Nazioarteko Kristau Demokraziako presidenteordea; **Marcelo Trivelli**, Txileko Santiagoko Intendente ohia; **Jose Luis Larrea**, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailburu ohia; **Gutenberg Martinez**, Txileko diputatu ohia, Txileko Kristau Demokraziako presidente ohia eta ODCEAko presidente ohia; **Andrés Palma**, Txileko diputatu ohia eta ministro ohia, eta **Marielle de Sarnez**, Europar Alderdi Demokratiko idazkari nagusia.

5.10.- “Garapen jasangarriaren gakoak: mugikortasuna eta lurzoruen erabilerak”



Sabino Arana Fundazioak eta Garraioa eta Logistika Klusterrak antolatuta, pertsonen mugikortasunaren eta lurzoru-erabilpenaren arloan garapen jasangarria lortu ahal izateko funtsezko diren gako batzuk aztertu ziren, Donostiako Miramar jauregian, ekainaren 13an.

Topaketan mugikortasuna, garraio publikoa eta lurzoruen erabilpena arloetako nazioarteko aditu zenbaitek parte hartu zuten: **Frederick P. Salvucci**, Massachussets-eko Teknologia Institutuko (MIT) irakasle seniorra eta Massachussets-eko Garraio ministro ohia; **José Luis Moscovich**, San Frantziskoko Garraio Agintaritzako zuzendari betearazlea; **Mikel Murga**, Massachussets-eko Teknologia Institutuko (MIT) irakaslea eta “Leber Planificación e Ingeniería”ko presidentea; EAJren EBBko lehendakari **Iñigo Urkullu**, eta Gipuzkoako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu **Arantza Tapia**.

5.11.- ““Gizarte-aldaketa sustatuz 2020 ikusmuga.”

“Think Gaur Euskadi 2020” etorkizun-egitasmo estrategikoaren barruan, uztailaren 9an, Sabino Arana Fundazioak eta Kopenhageko Etorkizuneko Azterlanetarako Institutuak — Copenhagen Institute for Futures Studies— lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu zutene, berorren bitartez Euskadik hurrengo hamarkadan gizarte-politiken arloan erantzun beharko dien beharrianak definitu ahal izateko.



Txostenaren aurkezpenean parte hartuzutenak izan ziren: Iñigo Urkullu, EAJren EBBko lehendakaria; Juan M^a Aburto, Think Gaur Euskadi 2020ko Gizarte Politiketarako Arloaren koordinatzailea; Kristina L. Søgaaard, Copenhagen Institute for Futures Studies-eko egitasmo-zuzendaria; Jeffrey Saunders, Copenhagen Institute for Futures Studies-eko Nazioarteko Gaietan aditua, eta Irune Zuluaga, Sabino Arana Fundazioko zuzendaria, eta Euskalduna jauregian egin zen irailaren 23an.

5.12.- “Berrikuntza, bilakaera eta etorkizuna”

Osasunaren eta bizitza-kalitatearen arloko ikerketa eta berrikuntzaren arloko aditu zenbaitek “*Berrikuntza, bilakaera eta etorkizuna*” mintegian parte hartu zuten urriaren 9an. Jardunaldia Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen, “Think Gaur Euskadi 2020” etorkizun-egitasmoko elkarraldien barruan.



Biomaguneko zuzendari nagusiak, eta kontseilari ordezkariak, parte hartu zuten.

Mintegian **Iñigo Urkullu** EAJren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak, **Estibaliz Hernáez** Think Gaur Euskadi 2020ko Berrikuntza atalaren arduradunak, Sabino Arana Fundazioko lehendakari **Juan M^a Atutxak** eta hiru txosten-emaileek: **Eudald Carbonell** Sierra de Atapuerca aztarnategiko zuzendarikideak; **José María Mato** CIC Bioguneko eta CIC **Antonio Martínez**, Progenika Biopharmako

Jardunaldi honen xedea da, gogoeta egitea bizi garen mundu globalizatu honetan Euskadiko herritarren bizitza-kalitatea nola hobetu daitekeen berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren bitartez. Beste modu batez esanda, asmoa da, herritarrak kontzientziaraztea berrikuntzak izan behar duela herritar guztien bizitza-kalitatea hobetzen lagunduko duen tresna.

5.13.- “Zahartzea eta mendekotasuna: etorkizun-erronkak”

“Think Gaur Euskadi 2020” etorkizun-egitasmo estrategikoaren barruan, Sabino Arana Fundazioak jardunaldi bat antolatu zuen 21ean, goiz eta arratsalde, Bilboko Sheraton hotelean, eta bertan gizarte-politikaren arloko pertsona nabarmen zenbaitek parte hartu zuten.

Izenburu orokortzat “Zahartzea eta mendekotasuna: etorkizun-erronkak” izan zuelarik, aipatu mintegian honako hauek izan ziren txosten-emaile: **Tine Rostgaard And.** (Danimarkako Gizarte Ikerketarako Institutu Nazionala); **Ignace Olazabal Jn.** (Québec-eko Unibertsitateko Gizarte Gerontologiako Ikerketa eta Espezializaziorako Zentroa

(CREGÉS), eta **Covadonga Solaguren And.** (Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatu).

Gizarte-politiken arloko 40tik gora aditu eta espezialista bildu dituen elkarraldi horretan



zenbait alderdi aztertu dira, hala nola: adineko pertsonen mendekotasuna artatzeko Europar dauden politikak; zahartzearen gizarte-prozesua; mendekotasuna prebenitzeko eta artatzeko berrikuntzak, eta Ipar Europako herrialdeetan mendekotasuna artatzeko dituzten etorkizun-erronkak, besteak beste.

Txosten-emaleez gain, aipatu jardunaldian zuten, hala nola: **Santiago Canales** (Igurcoko gerentea); **Itziar Ceballos**

(AVIFES); **Carlos del Campo** (Urgatzi); **Marian Díaz** (Alzheimerre duten pertsonen Senideen Elkarte —ASE / A.F.A.); **Juan M^a Fernández de Gamarra** (Autonomiako Arreta Soziosanitarioaren koordinatzailea); **M^a Antonia González** (Beti Gizartean Fundazioa); **Pablo González** (Gorabideko zuzendari gerentea); **Carmen Gonzalo** (Ekinbide); **Susana Gorbeña** (Deustuko Unibertsitatea —Psikologiako dekanotza); **Ramón Jauregui** (Zorroaga Fundazioa); **Esther Larrañaga** (ASPACE Gipuzkoa); **Adolfo Alustiza** (IFASEko zuzendaria); **Rafa Lopez-Arostegi** (EDE); **Manuel Merino** (Aspaldiko Fundazioa); **José Javier Miguel de la Huerta** (Gerontologoa); **Ana Osuna** (FEKOOR); **Karmele Ruiz** (Gaitasun Urriko Pertsonak Koordinatzeko Federazioa); **Mikel Ruiz** (Bilboko Elizbarrutiko Caritas); **Natxo Ruiz** (APNABI); **Luis Maria Ullibarri** (Innobasque); **Javier Vitoria** (EDE Fundazioa), etab.

5.14.- “Euskadi: aberria eta ‘paradisua’. Identitatea, kohesioa eta ongizatea mundu ireki honetan”

Jardunaldi hau Gasteizko Lakua hotelean egin zen, urriaren 30ean, goizez.



Jardunaldi horretara hogeita hamarretik gora adituk eta Euskal Herriko zenbait erakunderen ordezkari; haien artean nabarmentzen dira, besteak beste: **Ferrán Requejo** Pompeu Fabra Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientziako katedraduna; **Iñaki Lasagabaster** EHUKo Administrazio Zuzenbideko katedraduna; **Bernardo Atxaga** idazlea eta erakundeen zenbait ordezkari, hala nola, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba lurralde historikoetako

hiru ahaldun nagusiak, **Jose Luis Bilbao**, **Markel Olano** eta **Xabier Agirre**, hurrenez

hurren; **Juan Jose Alvarez**, Nazioarteko Zuzenbide katedraduna eta Mugimendu Europazaleko Euskal Kontseilukoa idazkaria; **Andoni Ortuzar**, EAJren BBBko lehendakaria; **Gorka Espiau**, Eusko Jaurlaritzako Bizikidetzaz eta Bake Planerako aholkularia; **Jokin Bildarratz**, EUDELeko presidentea; **Belen Greaves**, EAJren EBBko idazkaria; **Mikel Legarda** Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordea; **Josebaurrekoetxea**, EBBko burukidea; **Iñaki Gurtubai**, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko zerbitzu-zuzendaria; **Maixabel Azpillaga** legebiltzarkidea; **Josu Erkoreka**, Kongresuko diputatua **Ramiro González**, Arabako Batzar Nagusietakoa; **Unai Grajales**, Arabako Bideak-eko zuzendaria; **Itziar Lizeaga**, hauteskunde-prozesuetarako zuzendaria, etab.

Partehartzaileek, Think Gaur Euskadi 2020 barruko “Euskadi-Europa. Konstituzioa ikusmuga” lanak dituen ardatzak: identitate historikoa, autogobernua, euskal gizartearen aniztasuna eta politikari aplikatutako berrikuntza, aztertu zituzten.

5.15.- “Euskadiren kultur garapenerako erronkak XXI. mendean” gaia jorratzeko eta “Euskadiren kultur garapenerako erronkak XXI. mendean”

Azaroaren 11n lan-tailer bat egin zen Euskaduna jauregian zenbait kultur kudeatzailerekin. Jardunaldiaren aztertu zen gaia “*Euskadiren kultur garapenerako erronkak XXI. mendean*”, eta bertan hiru adituk parte hartu zuten txosten-emaiela gisa: **Pius Knüsel** Pro Helvetia Fundaziokoa (Suitzako Arteen Kontseilua); **Javier Lezaun**, Oxford-eko Unibertsitateko irakaslea eta Cornell-eko (AEB) Unibertsitatean Zientzia eta Teknologian doktorea..

Jardunaldiaren beste atal bat, kultura-sortzaile eta arteak, euskara eta kultura arloetako zenbait ordezkariarekin azaroaren 20an egindako elkarraldia izan zen. Topaketa horretan Quebec-eko Zibilizazioaren Museoaren Ikerketa eta Ebaluazio arloko zuzendaria eta Kultura Ministerioako ministro-ordea, zein “Kultur identitateak aro digitalean eta kultur instituzio handien eginkizuna” gaiak mintzatu baitzen.

Lan-jardunaldia arratsaldean bukatu zen Bilboko Euskalduna jauregian “*Euskadik 2020an izango dituen kultur erronkei buruzko elkarrizketa*” izenburupean izandako elkarraldi batekin, non parte hartu zuten **Juan Jose Ibarretxe** lehendakariak, **Iñigo Urkullu**, **Gérald Grandmont** Jn.ak berak eta arteak, euskara eta kultura esparruetako ordezkari zenbaitek.

5.16.- ““Berrikuntza, gizarte-aldaketa eta buruzagigoari buruzko solasaldiak”



Azaroaren 22an elkarraldi bat, “Berrikuntza, gizarte-aldaketa eta buruzagigoari buruzko solasaldiak” izenburupean, egin zen Sabino Arana Fundazioak antolatuta, eta bertan parte hartu zuten, Iñigo Urkullu EBBko lehendakariak gain, I+G+b arloko mundu mailako adituri garrantzitsuenetako batzuk,

hala nola: **Soumitra Dutta** Europar Batzordearen “Europa Innova” taldeko presidente eta INSEADeko Enpresa eta Teknologiako Roland Berger katedrako irakaslea, eta **Ranga Rao**, Indian School of Business-eko dekanoa.

Jardunaldi horretan baita parte hartu zuten ere: **Jon Azua** e-novating lab-eko presidenteak, **Olga Rivera** Deustuko Unibertsitateko Enpresaren Antolaketa eta Politikako katedradunak, **Alfonso Martinez Cearra** Bilbao Metropoli-30eko zuzendariak, **Estibaliz Hernáez**, Think Gaur Euskadi 2020ko Berrikuntza arloaren koordinatzaileak eta Euskadiko politikagintza, ekonomia, gizarte eta kultura arloko hogeita hamarretik gora ordezkariak.

5.17.- “Kon trasteak”

Think Gaur. Euskadi 2020ren arloetako koordinatzaileek iritzi-sortzaile eta hedabideetako zuzendari zenbaitekin egindako elkarraldia, ekimen hoien barruan egiten ari diren lanak aurkezteko eta kontrastatzeko.

Bileran parte hartu zutenak. Txema Montero, Daniel Innerarity, Arantza Urretabizkaia eta Mario Fernández. Horiek Think Gaur Euskadi 2020 prozesuaren azterketa kritikoa egin zuten, egiten ari denari buruzko iritzia eman zezaten.

6.- GAZTERIA

6.1.- Mahaingurua: "Pekin 2008: Espiritu olinpikoa XXI. mendean"



Hein Verbruggen NBOko Batzorde Koordinatzaileko mahaiburu eta Nazioarteko Txirrindularitza Batasuneko (NTB) lehendakari ohiak, **Andoni Zubizarreta** nazioarteko futbolari ohiak eta **Igor Gonzalez de Galdeano** txirrindulari olinpiko ohi eta Euskaltel-Euskadiko zuzendari teknikoak mahainguru bat osatu zuten joan den apirilaren 24an, Bilboko Euskalduna jauregian, 2008ko Pekineko Olinpiaden kariatara zenbait kirol kontuz hitz egiteko.

NBOko Batzorde Koordinatzaileko mahaiburuak “Txina 2008: erronka olinpikoa” izan zuen hizpide; Igor Gonzalez de Galdeanok “Eliteko profesionala Joko Olinpikoetan” gaiaz hitz egin zuen eta Andoni Zubizarretak “Bandera, armarrria eta sentimenduak” hartu zuen mintzagai.

6.2.- “Venezuela eta zubien belaunaldia”

Yon Goicoechea Lara ikasle-lider venezuelarrak jendearentzat irekia izan zen hitzaldi bat eman zuen uztailaren 15ean Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan; hitzaldiaren izenburua “Venezuela eta zubien belaunaldia” izan zen. Yon Goicoechea Lara, zeinen aitona-amonak Gordexolakoak baitira, 2007ko hasiera aldera nabarmendu zen Venezuelako figura nazional gisa, hain zuzen ere Hugo Chávezen gobernuak Radio Caracas Televisión ixtearen kontra, eta, geroago, Venezuelako Presidentea bera bultzatzen ari zen Konstituzio-erreformaren kontra sortutako ikasle-protestaren buru jardun zuenean.



Harrezkero, 23 urteko Zuzenbide ikasle honek berrogeita hamar bat protestazko ikasle-martxa jendetsu, eta baketsu, antolatu ditu giza eskubideen zein herritarren eskubideen eta adierazpen-askatasunaren alde, berak haiek Venezuelan mehatxaturik ikusten baititu.

6.3.- Emantzipazioa: gauzatu daiteke!



aztertzeke.

Izenburu orokortzat “Emantzipazioa: gauzatu daiteke” zuen elkarraldi hartan baita parte hartu zuten ere **Niels Bottger-Rasmussen** Copenhagen Institute for Futures Studies-eko (CIFS) egitasmo-zuzendariak eta **Santiago Cirugeda** arkitekto eta sevdar kultur ekintzaileak.

6.4.- Gazteen parte hartzea Iparramerikako hauteskundeetan



Abenduaren 1ean **Luis Raúl Matos** George Washington Universityko Politika Gerentziako Graduondoko Eskolaren Latinoamerikarako Gobernagarritasun eta Politika Gerentziarako Programako zuzendari eta Venezuelako Finantza ministro ohi eta Planifikazio ministro ohiak; **F. Christopher Arterton** George Washington Universityko dekanok, eta

Heather Smith, unibertsitate bereko irakasleak honako gai hauek aztertu zituzten mahainguru batean: bateko, AEBetako presidentetzarako hauteskundeetan Barack Obamak egindako hauteskunde-kanpaina bera eta, besteko, hautagai demokratik hauteskundeetan irabaztea eragin zuten arrazoiak.

Heather Smith-ek, gazte-botoaren ordezkari izaki," datu esanguratsu bat jakinarazi zuen: 18 eta 29 urte bitarteko pertsonetan, hautagai beltzak irabazi zituen hauteskundeetan 2004koetan baino hiru milioitik gora gehiagok eman zuten botoa; sei boto gaztetik lau Obamarentzat izan ziren. Boto-emaile berri horiek, afroamerikarrenei gehituta, Estatu Batuetako panorama aldatu dute. "Boto-emaile berri horiek inplikatu izanak beste prozesu baten hasiera ere badakar: Alderdi Demokratari boterea hamarkada askoan atxikitzea ahalbidetuko diona, hain zuzen", iragarri zuen Smith-ek.

6.5.- "Gazteak eta politika. USA'08ko hauteskundeetako esperientzia"



Iparramerikar hauteskundeetako kanpaina eta Obama fenomenoak aztertzerakoan, mahaingurua ez zen izan antolatutako ekitaldi bakarra. Mahainguruaren aurretik, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan gazte blogari zenbaiten eta Smith irakaslearen arteko elkarraldi bat ere egin zen, "Gazteak eta politika. USA'08ko hauteskundeetako esperientzia" izenburupean. Estatubatuar irakaslea gazteak eta politikagintza gaiari buruz diharduen Young Voters Strategy

izeneko egitasmo garrantzitsuen zuzendaria da, eta oinarriak mobilizatzen ere lan egin izan du hauteskunde-kanpainetan.

6.6.- Ahozko historiako tailerrak ikasle gazteentzat

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak Artea Arratian dituen instalazioak bisitatzea datozen ikastetxe guztientzat abiatu duen jarduera-multzoarekin jarraiki, 2008an historia-tailer egin dira..

- **Otsaila**

Otsailaren 27a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Jose Moreno, "San Andrés" batailoiko gudaria, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historiko berreskuratzeko atalean.

Lauro ikastolak parte hartu zuen.



Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

Otsailaren 28a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Jose Moreno, “San Andrés” batailoiko gudaria, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atalean.

Lauro ikastolak parte hartu zuen.



Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

• **MARTXOA**

Martxoaren 11

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Esteban Urien, “Belgikara erbesteratutako gerrako umea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atalean.

Durangoko “Fray Juan de Zumarraga” Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu zuen.



Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

Martxoaren 12a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Joseba Agirre Zabala, Jose Antonio Agirre lehendakariaren semea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atalean.

Durangoko “Fray Juan de Zumarraga” Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu zuen.



Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

- **APIRILA**

Apirilaren 29a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Joseba Agirre Zabala, Jose Antonio Agirre lehendakariaren semea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atalean.

Azpeitiko Urola Ikastolak parte hartu zuen.



Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

Apirilaren 30a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertaeraren zuzeneko lekukotasunekin. Laguntzaileak: Joseba Agirre Zabala, Jose Antonio Agirre lehendakariaren semea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atalean.

Azpeitiko Urola Ikastolak parte hartu zuen.



- **UZTAILA**

Bisita-tailerrak Lehen Hezkuntzako eskola-umeei zuzenduta eta maila bitan banatuta:

Lehenengoan 4 eta 9 urte bitarteko neska-mutilek euren bandera sortzen dute, aurretik banderei buruz eman zaien informazioa eta hartarako jaso duten zenbait material erabiliz.

Bigarren tailerra 10 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat da eta “Historia osatzen” izenburupean egiten da. Tailer hori erakusketa iraunkorrari atxikita dago, eta, behin bisita amaitutakoan, ikasleek zenbait puzzle osatu behar dituzte; puzzleok ibilbidean ikasleek ikusi dituzten zenbait objekturenak dira eta gure historiako gertaera batzuk irudikatzen dituzte.



Arteako Udaleku Irekiek parte hartu zuten.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.

EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK

1.- Euskara Plana

Aurten ere, 2008 osoan Sabino Arana Fundazioak euskararen erabilpena normalizatzen eta sendotzen segitu du berak garatutako esparru, jarduera eta jakinarazpen guztietan guztietan.

Horretara, Sabino Arana Fundazioaren urteanitzeko planaren helburua, sortuz geroztik Fundazioak euskaraz garatutako jarduera sendotzea eta haren erabilpena, ahozkoa zein idatzia, areagotzea da, kanpo-harremanetan batez ere, euskara ekoiztea ere sustatuz.

2.- Bertsopaperen lehiaketa

Sabino Arana Fundazioak gazteen artean euskararen erabilpena bultzatu eta sustatzeko garatzen dituen jardueren artean, joan den ikasturtean “bertso-paperen” lehiaketaren bosgarren aldia antolatu zuen. Lehiaketa hau Lehen Hezkuntzako 2. zikloa edo DBHko 4. maila bitartean, biak barne, ikasten ari diren Euskal Herri osoko eskola-umeei dago zuzenduta.



V. aldi honetan irabazleak izan ziren: A kategorian (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa) irabazlea Jon Dorronsoro Maioz, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun), izan da. Bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren, Aratz Irazustabarrena Garmendia, San Juan Ikastetxekoa (Alegia) eta Paul Iruretagoiena Rezola, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun), geratu dira.

B kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa), irabazlea Andoni Imaz Pozueta, Urretxu-Zumarraga Ikastolakoa, izan da. Kategoria honetan bigarren sailkatu dena Bertol Murua Gorostidi, Samaniego Herri Ikastetxekoa (Tolosa) izan da eta hirugarrena, Maialen Akizu Bidegain, Gainzuri Ikastetxekoa (Urretxu).

Hirugarren edo C kategorian (DBHko 1.a eta 2.a), lanik onena Urretxu-Zumarraga Ikastolako Jone Alberdi Ballinarena izan da, eta Iñaki Artola Izagirre, Aralar Institutukoa (Alegia), eta Mikel Iturriotz Etxaniz, Urretxu-Zumarraga Ikastolakoa, jarraitu zaizkio.

Azkenik, D kategorian (DBHko 3.a eta 4.a), Joseba Agirrezabala Iparragirre, Loinazpe Institutukoa (Beasain), izan da irabazlea. Bigarren postuan Imanol Irazustabarrena Garmendia, Aralar Institutukoa (Alegia), geratu da eta hirugarrenean, Amaia Iturriotz Etxaniz, Urretxu-Zumarraga Ikastolakoa.

Lehiaketako irabazleek euren saria, Dinopolis Gai Parkean eta Ambarina eskualdean, Terueleko probintzian, gozatu ahal izan zuten ekainaren 19a eta 22a bitartean.

Dinopolis erakusketa paleontologikorako Europako azalerarik handiena da, jolasteko eta ikasteko eremu bat izateaz gain, eta milaka bisitari erakartzen ditu urtero.

3.- Mahaingurua: “Hizkuntza ala hizkuntzak. Euskadi–Galiza–Catalunya”



Hizkuntzen Nazioarteko Urtea eta Euskararen Nazioarteko Urtea (abenduak 3) ospatzen zirelarik, Sabino Arana Fundazioak mahainguru bat antolatu zuen abenduaren 2an, hizkuntza-dibertsitatea gizateriaren ondareztat errebindikatzeko.

“Hizkuntza ala hizkuntzak. Euskadi–Galiza–Catalunya” izenburuko mahainguruan parte hartu zuten: Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Xuntako

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi Marisol Lópezek, eta Kataluniako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi Bernat Joanek.

8.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA – ARCHIVO DEL NACIONALISMO

8.1.- AGIRI FUNTSAK. EGINDAKO LANAK.

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

A.1. Artea Arratian

- Jesus Solaun Funtsaren antolaketa eta deskribapena amaitu.
- Joseba Rezola Funtsaren antolaketa eta deskribapena amaitu.
- *Euzkadiko Jaurlaritzaren dokumentazioa artxibo-kutxa berrietan berrinstalatzeko zereginak amaitu. Dokumentuak eurak fisikoki lekualdatzeaz gain, sinadura topografikoa ere aldatu da, hala kutxen kanpoko aldean, nola barruko karpetatxoetan, nola funtsa antolatzeko eta deskribatzeko baliatu den datu-base informatizatuko 3.800etik gora erregistro- fitxetako bakoitzean. Azkenik, *Euzkadiko Jaurlaritza* artxibo hau 802 instalazio-kutxatan eta fitxategi batzuetan bilduta geratu da.*
- Beste funts batzuk berrinstalatu dira, horien dokumentazioa Euzkadiko Jaurlaritzaren dokumentazioa zuten karpetak zeuden kutxen artean banatuta baitzegoen: Fondo Basterra,
- Banakoka idatzi da, urte osoan jasotako ekarpen partikular guztietako berrogeita hamarretik gora materialen inbentarioa. Inbentarioetan deskripzioak dokumentazio motaren arabera sailkatu eta antolatzen dira: Artxibo-agiriak, Bibliotekakoak, Hemeroteka, edo Ikus-entzunezko Materiala.
- Dohaintzak “Dohaintza-emaileak” “Funtsak” datu-baseetan erregistratu.

A.2. Sabin Etxean

Silak sortzek olanak zuzentzea eta gainbegiratzea:

- Liburutegia (Idazkaritzan), 120 metro lineal eta 6.079 libururi bizkar-oharra ipini eta datu-base informatizatuan erregistratzea.
 - Hemeroteca (en Idazkaritza), con la instalación de las publicaciones seriadas por orden alfabético y cronológico en 120 metros lineales
 - Artxiboa (Idazkaritzan), Aurrena 500etik gora sailkatze-karpetatan zegoen agiri-materiala berrantolatzea. Datu-basean deskribatuta erregistratzea.
 - Ikus-entzuneko Dokumentuen gordailua (Idazkaritzan): bideos, CDak, DVDak, kasete-zintzak, ordenagailu-disketeak, etab. Filmak erregistratzea.
- Urruneko Gordailua: Sabin Etxeko -3 sotoan; EAJk, konpromisoei, afiliatuei, ikertzaileei, udal erakundeei etab. entregatzeko gordetzen duen material editoriala eta funtsak errepikatuta (3na ale baino gehiago)
- EBBren etorkizuneko bitarteko artxiboa (-5 sotoa), BBBrena (-4 sotoa) eta propagandako materialaren Biltokia.

A.3. Argazki-artxiboko argazkiak digitalizatzea. 2008an Kudeaketa Zerbitzuak enpresari egindako enkargoarekin jarraitu zen; enpresa hori Lantegi Batuak taldekoa da. Enkargoa: geure argazki-artxiboa digitalizatzea. Aurten 1.543 irudi digitalizatu dira: 100 dpi-ko bereizmenekoak (erdian ur-markarekin, web-erako), 300 dpi-koak (© *sabino arana fundazioa* moldearekin) eta 600 dpi-koak (artapena).

B) BIBLIOTEK FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2008/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **35.962** izan dira. Urtebete horretan beste 1.262 ale lan erregistratu dira, hala datu-basean (deskripzioa), nola fisikoki apalean ipini.

Liburutegian dauden metro lineal kopuru berean liburuki gehiago erantsi ahal izateko, aldeztu aurretik beste obra batzuk ateratzen dira eta Urruneko Gordailura (Manu Egileor eraikinean) eramanb, beste liburu bartzuek har dezaten haiek legua.. Liburutegiko apaletatik ateratzen dira obrak ale errepikatuak eta modernoak izaten dira; baina kokalekuz aldatzen dira bakarrik, ezen bakoitzaren deskripzioa eta jatorria lehengo lekuan geratzen dira.

C) "Uzturre" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2008an beste **194** izenburu berri gehitu zaizkio Hemerotekari. Une honetara arte "Uzturre" Hemerotekak dagoeneko **6.057** izenburu desberdin dauzka, eta 148.000 ale guztira.

8.2.- II.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

Kontsultak: Abertzaletasunaren Agiritegian **251** informazio-eskaera jaso dira 2008an, postaz, posta elektronikoz, faxez nahiz aurrez aurre. 1992ko urtariletik egin diren kontsultak guztira 3.140 izan dira.

- Ikerketa: Bidaia Dominikar Errepublikara: Dokumentazio kontsultatu da “Archivo General de la Nación”en, Galindezen figurari buruzko egitasmo bat izan daitekeenerako (2008ko uztaila).

- Argitaratze-lanak: Labayru Ikastegiaren elkarlanean egiten ari den lanarekin jarraitu da, Alberto Onaindiaren agiri-iturriak, 1936-45, argitaratzeko. Posta-trukea bildu, dokumentuak antolatu, fotokopiak....

- Argitaratze-lanak: “Diario de Agirre” liburua prestatzen.

- Lankidetzak: hitzaldia Durangon, gerran euskal apaizek jansandako errepresioari buruz.

- Lankidetzak : hitzaldia Elorrion Juan Izurategi apaizari buruz; kartzelan hil zen.

8.3.- IKERTZAILEAK

Gure agiri-funtsak 2008an 50 ikertzailek kontsultatu dituzte: Honako hauek dira izen-deiturak

DEITURA	IZENA	IKERLANA
AIZPURU MURUA	MIKEL	CONSTAN BRUSIOFF
AIZPURU ZUBIZARRETA	ENEKO	SABINO ARANA (POR LEYRE ARRIETA)
ALONSO FLAMARIQUE	MIGUEL	PROYECTO PARA LA FUNDACIÓN SABINO ARANA DE JORGE OTEIZA Y NÉSTOR BASTERRETxea
ANASAGASTI	IÑAKI	ACCIÓN PARLAMENTARIA EN CORTES, DESDE 1931 MONASTERIO DE BELLOC
ARRIEN BERROJAECHVARRIA	GREGORIO	VASCOS EN CATALUÑA ; EXILIO NIÑOS
ARRIETA ALBERDI	LEYRE	RADIO EUZKADI, COOPERATIVISMO PRE-GUERRA CIVIL, PNV-EUROPA
ATUTXA AMEZUA	JABIER	CONVENTO DE AMOREBIETA – LARREA
AURRECOECHEA URQUIJO	JOSÉ LUIS	BATALLÓN PADURA
BARRUSO BARÉS	PEDRO	EXILIO Y GUERRA CIVIL
BERAZATEGI MTNEZ.	IÑAKI	CANCIONES DE LA GUERRA
CAJAL VALERO	ARTURO	REPRESALIADOS DEL FRANQUISMO EN ALAVA, 1939-1975
CAPEROS ELOSUA	FELIX	EXILIO INFANTIL VASCO
DE PABLO CONTRERAS	SANTIAGO	HISTORIA DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO. CINE, GUERRA CIVIL Y NACIONALISMO
EGURROLA MADARIAGA	IÑAKI	LUIS ARANA GOIRI
ELORZA MAIZTEGUI	JUAN LUIS	GUERRA EN EL BAJO DEBA Y BATALLÓN SAN ANDRÉS; JUAN ARGARATE LARREATEGI, FALLECIDO EN ASTURIAS DURANTE LA GUERRA CIVIL.
EMPARAN ORTIZ	JOSE RAMÓN	CÁNDIDO SASSETA
ETXEBARRIA ZAMALLOA	IGONE	GORGONIO RENTERIA, LAUAXETA
FANO PEREDA	ARITZA	ESCULAS VASCA EN LA 2ª REPÚBLICA:

		ESCUELA VASCA DE BELOSTIKALLE.
FERNÁNDEZ SOLDEVILLA	GAIZKA	HISTORIA DE EUSKADIKO EZKERRA
FIGUERO GOIRIZELAIA	VIRGINIA	CINTURÓN DE HIERRO
GARRIDO COUCEIRO	XOAN CARLOS	NACIONALISMO GALEGO, 1936 - 1946
GENIOLA	ANDREA	NACIONALISMOS PERIFÉRICOS
GONZÁLEZ LÓPEZ	ETELVINO	COMITÉ ESPAÑOL POR LA PAZ CIVIL. ALFREDO MENDIZABAL
GONZÁLEZ VILALTA	ARNAU	RELACIONES ENTRE NACIONALISMO VASCO Y CATALÁN
IPÍÑA BIDAURRAZAGA	ARITZ	DEPURACIÓN DE LAS INSTITUCIONES DEMOCRÁTICAS, 1937-1943. REPRESIÓN FRANQUISTA
IRAZABAL	JON	BOMBARDEO DE OTXANDIO GERRA DURANGALDEAN
IRIGOYEN ARTETXE	ALBERTO	AGUIRRE EN URUGUAY, NACIONALISMO VASCO EN URUGUAY
IRUJO AMETZAGA	XABIER	BINGEN AMETZAGAREN OLERKARITZA ETA AGIRREREN GOBERNUKO POLITIKA KULTURALA
JIMÉNEZ SÁNCHEZ	JOSÉ MANUEL	GUERRA CIVIL; DESAPARECIDOS
LANDALUZE AMUTXATEGI	IDOIA	LEKEITIOKO HERRIARI BEGIRA, HERRI ANTZERKIA, LEKEITIO 1937
LÓPEZ DE MATURANA DIÉGUEZ	VIRGINIA	LAS EVACUACIONES DE NIÑOS VASCOS 70 AÑOS DESPUÉS NACIONALISMO VASCO (PARA SANTIAGO DE PABLO), ETC.
LOPEZ I ESTEVE	MANEL	CONFLICTO INSTITUCIONAL GENERALITAT CATALUNYA - GOBIERNO DE LA REPÚBLICA (1934-1939)
LOUZAO VILLAR	JOSEBA	CATOLICISMO EN LA VIZCAYA DE LA RESTAURACIÓN
MARTÍNEZ RUEDA	FERNANDO	DICCIONARIO BIOGRÁFICO DE DIPUTADOS VASCOS
MILIKUA ETXEBARRIA	AITZIBER	PUBLICACIONES VASCAS EN EUROPA
MÍNGUEZ ANAYA	ADRIÁN BLAS	VALENCIANOS DEPORTADOS AL CAMPO NAZI DE MAUTHAUSEN
MURGIZU BAKAIKOA	JOSU	FORTIFICACIONES Y UNIDADES MILITARES EN EL SECTOR DE ELGETA.

OLÁBARRI GORTÁZAR	IGNACIO	JAVIER DE GORTÁZAR
PRAGNÈRE	PASCAL	LA IDENTIDAD NACIONAL VASCA POR LOS PARTIDOS POLÍTICOS. HISTORIA RECIENTE, 1950-2008
RAMOS LÓPEZ DEL PRADO	ÁNGEL	ASOCIACIONES JUVENILES NACIONALISTAS EN EL EXILIO DURANTE LA DICTADURA FRANQUISTA
RECEVEUR - CADIÑANOS	GERARD	CAMPO DE GURS BERE AITONAREN GORA-BEHERAK GERRA DENBORAN.
SANDIFORD	WILLIAM	FOTOS DE GERNIKA TRAS EL BOMBARDEO Y DE NIÑOS EVACUADOS EN BARCOS HACIA EL EXILIO
SEBASTIÁN GARCÍA	LORENZO	GOBIERNO VASCO (1936-1937) ACCIÓN CULTURAL
TABERNILLA ARAGÓN	RIKARDO	CARTOGRAFÍA DEL CINTURÓN DE HIERRO Y AVIACIÓN REPUBLICANA EN EL NORTE
UNCETA URBISTONDO	IÑAKI	IÑAKI UNCETA URKIZU
URIBE ELORRIETA	ARKAITZ	FAMILIARES GUERRA CIVIL. AITITE EN INGLATERRA
URKIZU SARASUA	PATRIZIO	EUSKAL TEATROA
VILLANUEVA GARCÍA	BEGOÑA	INNOVACIÓN Y COMUNICACIÓN: EL TELÉFONO EN VIZCAYA (1882-1936): BASE DE DATOS DE RECOPIACIÓN BIBLIOGRÁFICAS SOBRE LAS TELECOMUNICACIONES DEL PAÍS VASCO
ZARRAOA ZABALA	IÑAKI	BIOGRAFÍA Y PENSAMIENTO DE EUSTASIO ZARRAOA Y FEDERICO ZABALA
ZUÑIGA LAGARES	MAITE	DISPERSIÓN DE PRESOS VASCOS (POSGUERRA - FRANQUISMO)

9.-EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA



9.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den 2008ko ekitaldian Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak ahalegin berezia egin du bere funtsak Manu Egileor eraikinen berrinstalatzeko, han bildu baitugu museo-material guztia. Ildo horretan, gure funtsen zati handi bat, eta dohaintzen ondorioz erantsi zaizkien berriak, antolatzen dihardugu, geure Museoaren heinerako egindako informatika-programa baten laguntzarekin.

Hurrengo hauen inbentario exhaustiboa egin dugu:

- Ehungintzako funtsa: Inbentario berria egiten hasi gara; pieza batzuk berrinstalatu dira, eta eskuratutako berrien inbentarioa egin da.
- Hedabideen funtsa: ehunetik gora irratzi-piezaren inbentarioa egin da; bakoitzaren deskripzio zehaztua eta irudi digitalizatua egin dira.

- Armagintzako bilduma: Hedabideen funtsa: arma batzuk ezgaitu dira, eta erregistro-zenbaki berriaren berrinstalatu dira, legeari jarraiki. Bakoitzari deskripzio zehaztua, historia txiki bat eta argazki zehaztua egin zaizkie. Hori guztia Ertzaintzak egiaztatu eta erregulatutik.
- Argazkien Artxiboen: Deskripzio berri batean lan egin dugu, eta erregistro berriak sartu; 2.000 irudi baino gehiago digitalizatu ditugu, gehienak gerra zibilaren sasoikoak. Argazki horiek guztiak argazki-albumetan instalatu dira, ph neutroko gutunazaletan ipinita, bakoitza dagokion irudiari egokituta. Aldi berean, inbentario paralelo bat egin da eta hor errepikatutako irudiak deskribatzen dira, behin erregistratutakoan, bakoitzeko hiru ale.
- Eranskailuen bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten gara, idazpen berriak sartuz, eta, aldi berean, material errepikatuaren erregistro paraleloa ere gertatzen ari gara.
- Horma-irudien bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten gara, idazpen berriak sartuz, eta irudiak atzematen ere ari gara argazki digitalen bitartez.
- Sakelako egutegien bilduma: 350etik gora erregistro. Material errepikatuaren erregistro paralelo bat gertatzen ari gara, eta bakoitza bereizmen handiz digitalizatzen.
- Txartelen bilduma: 40 idazpen baino gehiago deskribatu ditugu, eta digitalizatu.

Lan horiek egin izanari atxikita, 150 kontsulta baino gehiago eskatu dizkigute deskribatu berri ditugun inbentarioen gainean.

Atal honetan, esan behar da, gure eranskailu, egutegi, horma-irudi eta txartel bildumak ugaritzen joan direla, bildumazaleek egindako ekarpenen bitartez, haiek gure dohaintza-egileen zerrenda ugaria are luzeago egin dutelarik.

Museoak 2008an dohaintza kopuru handia jaso du; orain haien inbentarioa egiten eta gordailuetan instalatzen ari gara dagozkien euskarrietan. Material garrantzitsu asko berreskuratzea lortu dugu, gure pinakoteka ugaritu dutelarik, funts higigarriak, etab., edo Zumaia Jon Gutiérrez Irigoienek bildumaren dohaintza, zeinetan hark zenbait garaitako janzkiak eta gauzakiak entregatu baitzizkigu, hala nola: gerra karlistak, Kuba eta Filipinetako gerrak, euskal abertzaletasunaren hasiera-garaiak, 2. Errepublika, 1936ko gerra eta 2. Mundu Gerra; edo Enrique Ibabe Pardo, Iñaki Calvo, Jose Antonio Taramona, euren dohaintzekin ekarpen garrantzitsuak egin dituztelarik gure defentsa, arte grafikoak. Eta beste funts batzuetara; edo Carmen Aizpururena,ekarpen garrantzitsua, halaber, ehungintzako funtsa (Sabino Aranarenak izandako materialak)); eta Edurne de Elordi, zeinek Filipinetako Batzokiaren lehenengo banderaren dohaintza egin baitigu, hura 1909ko uztailearen 31koa da.



Beste alde batetik, erakusketa ibiltariei dagokienez, nabarmendu behar da ezen, 2008an hara eta hona ibili direla eta udalerrri askotan ikusi ahal izan direla, mugikortasun handia erakutsiz. Ibiltaritza handi horren oinarri, arloko aditu zenbaitek emandako hitzaldiak eta tailer didaktikoak izan dira, bisitaria, behatzera zihoan une historikoa testuinguruan ipintzeko balio izan baitute.

Manu Egileor Aretoan egiten diren aldi baterako erakusketei dagokienez, 2008an Museoa orain dela urte bi hasi genuen politikari jarraitzen zaio, alegia: urte osoan erakusketa bat edukitzea aukeratu genuen, ikastetxeetako curriculum-egitasmoen estaldura hobea eman ahal izateko, erakusketa-eremuaren barruan ematen diren tailer didaktikoen laguntzarekin.

“Manu Egileor” erakustaretoan “10 talaia 1936ko gerrarako” izenburudun erakusketa ikusi ahal izan da, Bilboko Euskal Museoarekin elkarlanean, erakunde horrek materiala utzi digularik erakusgai ipintzeko.

Ikastetxeek harrera ona egin diote gure proposamen berriari, ingurune horren barruan egindako ahozko tailer didaktikoen hizlariak kontatzen dituzten gertaeren garaitik hurbilago sentiarazten baitituzte gazteak.

Erakusketa horrek jakin-min handia sortu du gure bisitari askorengan eta, ukitzen duen gaiagatik, beste erakusketa batzuek iritsi ez garen ikastetxe zenbait interesa daitezen lortu dugu.

Horrenbestez, ikasturte osoan bisitari nagusiak zenbait ikastetxetako ikasleak izan dira, eta sarritan horren bultzatzaile izan direla esan behar dugu: ematen ari garen ahozko historia-tailerrak, eta Museoak “Bizkaitik Bizkaira” programan parte hartzea.

Gure eskaintza didaktikoaren oinarriak dira:

1. Tailer-bisitak, Lehen Hezkuntzara (7-12 urte) zuzenduak, eta maila bitan banatuta: maila bitan banatuta: lehenengoa, “Sortu zeure bandera” izenburukoa, 7-9 urteko ikasleentzat, eta bigarrena “historia osatzen” izenburukoa 10-12 urteko ikasleentzat.

Lehenengoan informazio-karpetak banatzen dira, eta haietan, zenbait banderari buruzko informazioa eta ikasleek bakoitzak bere bandera egin ahal izateko materiala..



Bigarrenean, behin erakusketa iraunkorraren bisita amaitutakoan eta bertan erakusgai dauden eta gure historiaren zenbait gertaera azaltzen duten objektu batzuen gaineko informazioa jaso ondoren, eskola-umeek objektu horiek osatu beharko dituzte bertan emango zaizkien puzzleetan.



Udako hileetan pertsona eta talde askoren bisitak izan ditugu; horietako gehienen jatorri herrialdeak Katalunia, Mallorca, Iparraldea, Galizia, Irlanda, Amerika, Argentina, Ingalaterra, etab. izan dira.

Historia-tailerrek 12 eta 18 urte bitarteko gazteen eta, Euskadiren historiako hainbat gertaera, zuzenean bizi zituzten pertsonen arteko topaketak bideratzen laguntzen dute. Horren guztiaren osagarritzat, bideo-emanaldiak ere izango dira eta neska-mutilek protagonistei galderak egin ahalko dizkiete hizpide den sasoiaren eta bertan bete zuten eginkizunaz.

Euskal Abertzaletasunaren Museotik igarotzen diren gonbidatuak hainbat gaiz mintzatuko dira, hots: Gerra Zibila, espetxean izandako bizipenak, trantsizioa, euskal kultur produkzioa, gudarien batailoien eginkizuna, ikurrinaren legeztatzea, diaspora etab.

Urri-azaroetan bisitari kopuru handia jaso dugu, Gudari Egunaren ospakizunak ere eraginda. Haien artean hainbat Gudari eta Emakume, zeintzuk “10 talaia 1936ko gerrarako” erakusketa ikustean euren bizipenekin gomutatu ziren.



Urte osoan guztira 5.689 pertsona jaso ditugu.

Bisitatu gintuzten talderik gehienak martxoan, apirilen, urrian eta azaroan etorri ziren. Kontuan izan behar ditugu, gainera, Euskadi osoan zehar gure aldi baterako erakusketak ikusten izan direnak, Museoaren bisitari kopuru osoaren barruan sartu barik baitaude.

9.2.- LANKIDETZAK

- **“Elkar Argitaletxea”**

Gernikako Batzarren irudia “Euskal Erice Atlas Historikoa”ren barrurako

- **“Elkar Argitaletxea”**

Gernikako Sanrokadaren irudiak; 1977ko hauteskundeak Gernikan.

- **“Emakunde”**

Buenos Aireseko EABren ikurrinaren irudiak, Baleuko ekoiztetxearentzat

- **“Giltza Argitaletxea”**

Jose Ramón Rubialen irudiak, Gernikako Estatutua, DBH 3ko “Gizarte Zientziak. Geografia”

- **“Rafael Dalmau, Editor”**

Jose Antonio Agirre eta Lluís Companys-en irudiak, “Galeusca un ideal compartit” libururako.

- **“Gasteizko Udala”**

Francisco Javier Landabururen irudiak, Gasteizko Udal Kazetaren 83. zenbakian haren gaineko artikulua bat irudiz laguntzeko.

- **“Santillana Ediciones S.L.”**

Kresalaren irudia DBHko 4. Mailako libururako

- **“Jataondo Landa Garapenerako Alkartea”**

Bilboko burdinazko gerrikoaren irudia, 1945, zidor-ibilbideei buruzko argitalpen baterako.

- **“Francisco Javier Muñoz Fernández”**

Euskal erbestaldiko irudiak haren txostena irudiz laguntzeko “Congreso Internacional Imagen y Apariencia” (Murtzia) biltzarren aurkezteko.

- **“Liquid Media”**

Sabino Aranaren irudiak Estatu Batuetako Unibertsitateetan euskal genomari buruzko azterlanaren gaineko erreportaje baterako.

- **“Eibarko Udala”**

Mercedes Careagaren irudiak herrian egindako omenaldiaren kariaz.

- **“Xurxo Martínez”**

Jesus Galíndez-en irudiak eta beste bat gudaria Gernikao Arbolaren aurrean.

- **“Errepresaliatuak elkarte”**

Sestaori buruzko materiala, Udalerriari buruzko berreportaje bat egiteko haren aldizkarian.

- **“Elkarlanean S.L.”**

Lauxetaren irudia Antton Valverderen “Lauaxeta” izenburuko libretoko barruko orrialdeetatako.

- **“Pays Basque Magazine”**

Zenbait irudi: Sabino Aranaren erretratu bat, Aitzol, Agirre, meza frontean.

- **“Editorial Afers S.I.”**

“Carte ethnographique de l’Europe”ko 1915eko irudi bat, katalanezko argitalpen baterako.

- **“Udalbide Elkarlan Elkartea”**

Sabino Arana eta Euzkadiko konfederazioa agertzen diren zapia, ikurrinaren diseinua, 1932ko Lizarrako Estatutua.

- **“DEIA”**

Agirre forntean dela eta Irrintzi batailoien irudiak.

- **“Verónica Sierra Blas”**

Espainiako 1937ko ume erbesteratuen gutunazalaren eta atzerrian ume espainolari laguntzeko dirua biltzeko zigiluen irudiak, haren “Palabras huérfanas. Los niños y la Guerra Civil española” izenburudun argitalpenerako.

- **“Arrigorriagako Ahaztuak”**

Gudarien irudiak, foileto bat egiteko.

- **“Aunia aldizkaria”**

Irudiak: Itsasalde batailoia; Euzkadiko konfederazioa agertzen den zapia; mahuka-bikia; Aberri Eguneke zutoihala; Sabino Aranaren ikurriña; ikurriñaren diseinua... aldizkariko artikulua baterako.

- **“Getariako Udala”**

Agirre lehendakariaren bustoaren irudiak, Getariako plaza batean eskultura bat egiteko.

- **“Raimundo Alberdi”**

Amayur batailoia irudiak, Azpeitia eta Azkoitiari buruzko liburu baterako.

- **“Herritar Berri S.L.U.”**

Ikurrinaren diseinuaren eta Sabino Arana eta emaztearen irudiak, “Gara”n ateratzeko artikulua baterako.

- **“Aitor Landa”**

Ramón de la Sotaren irudia

- **“Roke Deunaren Gereziak Elkarte, Errekatxoa”**

Errekatxoko mendigoizaleen banderaren irudia

9.3.- TAILER DIDAKTIKOAK

(Gazteentzako ahozko historia-tailerrak 6.6 atalean daude sartuta)

- **EKAINA**

Ekainak 5

¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”
Hitzaldia: 19:30etan, izenburua:”Gerra Zibila eta frankismoa; bizipenak eta memoria historikoa, Aranzadi Zientzia Elkarteko Paco Etxebarriak emanda, Urduñan.

- **IRAILA**

Irailak 3

¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”
Hitzaldia: 19:30etan, izenburua:”Gerra Zibila eta frankismoa; bizipenak eta memoria historikoa, Aranzadi Zientzia Elkarteko Lourdes Herraztik emanda, Erandion.



Azaroak 9

“Muskizko artailua zaharberritzea”

Erakusketa: Muskizko Uri Buru Batzarrak dohaintzaz emandako artailua.



Azaroak 21

“Gudari Eguna”

Bisita: Gudariak eta emakumeak bisitari “10 talaia 1936ko gerrarako” erakusketan.



- **ABENDUA**

Abenduak 2

“Mondragon 100 urte”

Erakusketa: Amaia Ceciaga Garmendik dohaintza emandako bandera.



Abenduak 12

Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”

Hitzaldia: 19:30etan, izenburua:”Gerra Zibila eta frankismoa; bizipenak eta memoria historikoa, Aranzadi Zientzia Elkarteko Lourdes Herraztik emanda, Lemoan.



9.4.- EGINDAKO ERAKUSKETAK

9.4.1 “XABIER LANDABURU: “BIZITZA OSOA EUSKAL HERRIAREN KAUSARENTZAT”

Xabier Landaburu Fernández de Betoñoren jaiotzaren mendeurrena oroitzeko, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak **“Xabier de Landaburu (1907-1963): bizitza osoa euskal herriaren kausarentzat”** erakusketa antolatu zuen. Inaugurazioa 2008ko otsailaren 19an izan zen Gasteizen, haren jaioterrian, alegia.



Xabier Landaburu Fernández de Betoño (Gasteiz, 1907-Paris 1963) beste adibide bat da, euren gaitasun bikainean eta gizarte eta ikasketa prestakuntzan oinarriturik, ongizatezko etorkizuna sakrifikatu eta herri batekiko eta gogo-asmo batzuekiko maitasunaren alde borrokatu zen euskaldunen belaunaldi ereduzko hartan.

Euzko Alderdi Jeltzaleko politikari hau, Arabatik Kongresuko diputatua, erbestean Euzkadiko Jaurlaritzako Lehendakarioordea eta, idatzi zituen artikuluekin eta bere “La causa del Pueblo vasco” liburuarekin, euskal abertzaletasunaren teorilarietako bat izan zen. Gainera, Nazioarteko Lantalde Berrien (NEI) sorreran ere parte hartu zuen, Agirre lehendakariarekin batera, erbestean ordurako, erakundearen zuzendaritza-batzako kide ere izan zelarik.

Eta bere bizitzako 55 urteetatik 26 erbestaldian eman bazituen ere, eta hil ere egoera horretan 1963an, inoiz ez zen ahaztu bere jatorri arabarraz.

Erakusketan haren bizitza, lana eta gogo-asmo europazaleak ezagutarazten dira. Erakusketaren arduraduna Alex Ugalde EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakasle eta Zientzia Politiketan doktorea izan zen.

Hamabi paneletan euskaraz eta gaztelaniaz ipinitako testu zenbaiten, irudiak eta argazkiak dituztela laguntzeko, eta zenbait erakustokiren bitartez (dokumentazioa, argitalpenak, objektu pertsonalak...) gainbegiraketa bat egiten zaie Landaburuk eskaintzen dituen alderdi nagusiei, hala nola: abokatu gisa, kazetari, idazle eta publizista gisa, kultur erakundeetako eragile gisa, egunkari eta aldizkarietako zutabegile gisa, Euzko Alderdi Jeltzaleko buruzagi gisa, Gorteetako diputatu, Euzkadiko Jaurlaritzaren Parisko ordezkari eta nazioarteko zereginetan Agirre lehendakariaren laguntzaile gisa, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligaren dinamizatzailer gisa, euskal elkarte europazale eta federalisten bultzatzaile eta arduradunkide gisa, nazioarteko kristau-demokraziako kide gisa, Radio Euzkadiko esatari eta Euzkadiko Jaurlaritzako sailburu eta lehendakarioorde gisa.

Erakusketaren osagarri gisa, 90 orrialdeko katalogo eder bat ere prestatu zen; lan hori ere Alex Ugalde erakusketaren arduradunak koordinatuta egin zen; bertan Landabururen

biografia zehatz bat eskaintzen da, bai halaber Landaburu ezagutu zuten pertsona ospetsu batzuek (adibidez, Salvador de Madariaga eta Venancio del Val gasteiztar kazetari eta kronikaria) eta gaur egungo historialari eta ikertzaile zenbaitek beraren gainean emandako iritziak, eta haren idazkien hautapen bat, beraren pentsamolde politikoa hobeto ezagutzen laguntzeko.



9.4.2.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- Urtarrila

“Nunca más! Imágenes de guerra”

2008ko urtarrilaren 14tik 27ra
Erakusketa-aretoa, Zamudio



- Otsaila

"Xabier Landaburu (1907-1963): bizitza osoa euskal herriaren kausarentzat"

2008ko otsailaren 19tik martxoaren 9ra
Amarica aretoa, Gasteiz



- Maiatza

"¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939"

2008ko maiatzaren 26tik ekainaren 15era
Urduñako Kultur Etxea



-
- Iraila

"Erendio Goikoa. 100 urte"

2008ko irailaren 3tik 28ra
 Erendio Goikoko Batzokia



-
- Urria

"Trapagaran 100 urte"

2008ko urriaren 9tik 24ra.
 Trapagarango Batzokia



- Abendua

"¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939"

2008ko 12tik eta 21era
Lemoako Kiroldegia



10.- BESTE KULTUR JARDUERA BATZUK

10.1.- Sabino Arana Sarien Kultur Jaialdia

Sabino Arana Sarien XIX. edizioan, zein 2008ko urtarrilaren 27an ospatu baitzen, sarituak izan ziren: Santiago Carrillo, PCEko idazkari nagusi ohia; Jose María Bengoa doktorea eta elikaduraren arloko nazioarteko aditua; Cristina Iglesias eskultorea, Almudena Cid gimnasta, Vicinay Cadenas euskal enpresa.

Sabino Arana Sarien XIX. aldian, Jose María Bengoa elikaduraren arloko nazioarteko adituaren lanbide eta giza ibilbidea goretsiko ziren, *“bai Agirre lehendakariaren Jaurlaritzako Osasun Sailean hasi zuen zeregina, bai ondoren komunitatearen nutrizioaren garapenean egin zituen ekarpenak, bai behartsuenekin izan duen konpromisoa; konpromiso horrek, hain zuzen ere, bere bizitzako 65 urte baino gehiago eraman dizkio munduko gosearen, bidegabekeriaren eta txirotasunaren kontra borrokatzen”*.



XIX. edizio horretako beste sari bat Cristina Iglesiasek jaso zuen, *“gure artistarik nazioartekoenetako batek”*. Azken urteotako abangoardiako eskulturaren berritzaileetako bat deritzotelarik, Cristina Iglesiasek *“eskultura garaikidea iraultzen segitzen du, lengoia propioa eta irakurketa desberdina ematen”*.

Era berean, ur-gaineko plataforma handiak ainguratzeko kateen munduko fabrikatzaile aitzindariaren, Vicinay Cadenas bizkaitar enpresaren, lana ere eskertu eta goretsi zen. *“Burdinaren eta altzairuaren industrian duen 250 urteko esperientziak ereduazko euskal famili enpresa bihurtu dute, garai berrietara eta teknologia berrietara moldatzen ere jakin izan duten horietakoa, hain zuzen”*, nabarmendu zuten Fundazioek.

Almudena Cid, *“munduan gimnasia erritmikoan elkarren segidako hiru final olinpikotan lehiatu den gimnasta bakarra, eta lehenengo hamarren artean sailkatuz beti”*. Pekin 2008ko Joko Olinpikoetan jokatzeko agiria eskuratu ondoren, *“gasteiztarrek beste errekor bat, beste mugarri bat, lortu zuen gimnasia erritmikoaren historian; gimnasia erritmikoko goren kategoriako figuratzat dute, eta onentzat ere bai Ekialdeko Herrialdeetan jaio ez direnen artean”*, azpimarratu zuten Fundazioko kideek.

Azkenik, Santiago Carrillok Estatu espainolean demokraziaren berrezarkuntzan egindako funtsezko lana eta meritua goretsi ziren. *“Trantsizio baketsuari egindako ekarpena eta beraren gogo adiskidetzalea politikarekin eta adostasunak, orain dela 30 urte Espainiako Alderdi Komunista legeztatzea ekarri zuena bezalakoa, bilatzen konprometitutako pertsona baten adibide garbia dira”*.

10.2.- Durangoko Azoka.

Abenduaren 5etik 8ra Fundazioa beste behin egon zen, “stand” birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, Fundazioaren azken argitalpenak eta berritasunak erakusteko eta saltzeko.

11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2008an hurrengo hauek izan dira:

Orain dela urte batzuk hasita dagoeneko ohiko bihurtu delarik eta Euskadiko Galiziako Etxeen Elkartarekin elkarlanean, otsailaren 16an gorazarrea egin zitzaion Castelaori Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere, EAEko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoekin eta bizirik atera zirenekin batera, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen.

Matxixako Elkartarekin eta Bermeoko Udalarekin elkarlanean, omenaldia egin zitzaien Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudari guztien senideei eta adiskideei.

Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, urte osoan hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatu ziren, umeei eta gazteek hobeto ezagut ditzaten bizi diren ingurunea eta historia.